

Eraikitzen elkarteak Ipar Euskal Herriko autonomia bultzatu nahi du

Herriz herri bilerak antolatzen ari da elkarte berri hau

Joan zen larunbatean Eraikitzen elkarte berriak bere burua aurkeztu zuen Baionan: 'Ekaitza' aldizkariak Hazparnen maiatzaren 14ean Iparretarrak erakundeak plazaratu proposamenen inguruko eztabaidatik dator. Bertan talde iraunkor baten sortzea erabaki zen. Iparraldeko autonomia bultzatu nahi dute.

L.E. / BAIONA

«Autonomia batek zer-nolako aterabide berriak eskain diezazkiokeen Ipar Euskal Herriari» da herriz herri hasiak diren bilera batzuen gaia. Beraiek diotenez, «Eraikitzen taldea ez da alderdi politiko bat», beren nahikaria «eztabaidaren jartzea» da, zeren «jende askok ez du erakundee-tan parte hartzen». Oron gainera «baseari hitza eman nahi zaio».

Urratsa ez dela «alderdi aber-tzaleen bulegoetarik etorri» az-pimarratu dute. Jendeari hitza eman nahi zaio. Eztabaidaren oi-narria 'Ekaitza' astekariak agertu liburuxka da, IKren proposame-nak zehazten eta komentatzen dituen. 'Autonomi estatutu proposamen' baten antza duen dokumentuak gauza asko zehaz-ten ditu.

Jojo Etxebarne barkoxtar eta

IK-ko ustezko hiru kide Parisera eramane dituzte


M.E. / BAIONA

Joan zen ostiralean aduana zerbitzuko agenteek atxilotu zituzten Iparretarrak erakundeko ustezko hiru kideak Parisera eramane litzakete gaur. Hor epaile batek 'begirapenean jartzeko' erabakia hartuko luke hiru ki-deentzat. Baionako Solange Murgiarre 31 urteko emaztea, Daniel Teileri Luhusoko 25 urteko gaztea eta Pierre Soteras 47 urteko hazpandar atxilotu zituzten Samatzen, autopistaren sartzean, aduanaren kontrol ba-tean.

Gaur arte Baionako Polizia Judizialaren egoitzan egon diren hiru euskal herritar. Beren au-toan, mugazainek pistolak aurki-tu zituzten: bi 9 milimetroko eta bi 7,65eko. Armeekin batera do-kumentazioa zegoen. Aduana-riek Polizia Judizialaren laguntza eskatu zuten. Larunbatean poli-ziek etxe miaketak egin zituzten. Polizi iturrien arabera, etxe ba-tean dokumentazioa, fusila eta ordenagailua atzeman zituzten.

elkartaren buruzagiak zioenez «Ipar Euskal Herrirako auto-nomia ez da utopia bat». Fran-tziako Errepublikan dauden au-tonomiak, Polinesia edo Kale-donia, eredu garriak izan daitezke

bere ustez. 'Eraikitzen' hitzak dakarren 'eraikitze nahia' naba-ria da: «eraiki nahi dugu Euskal Herria eta nahi dugu hori la-gundu gogoetaz, aintzina joate-ko».




Eraikitzen elkarteko lehendakaria.

L.E.

KONTSUMO ETA EKOLOGIARI BURUZKO JAIALDIA

EKOKONSUM

Ekologia argiagoa



Ingurugiroak kezkatzen bazaitu, etzaiozu aukera honi ihes egiten utzi: zatoz Ekokonsumera, Ekologia eta Kontsumoaren Feriara. Ekokonsumek argi eta garbi jartzen dizu zuk zure etxean ura alferrik ez gastatzeko eta bere kutsadura-indizeak jaisteko egin dezakezun guztia. Nola erabili behar dituzun modurik egokienean arropa garbitzeko makina edo ontziak garbitzekoa. Ura nola aurreztu bainugelan. Zein produktu ez diren bota behar hustubideetara, eta guztioi interesatzen zaizkigun beste gauza asko eta asko. Ekokonsumek ekologia zure munduan bertan bizitzera gonbidatzen zaitu.

ZATOZ EKOKONSUMERA

Ekainaren 8tik 17ra

Lekua:
Orduak:

Udaletxeko Azpietan. Donostia.
Lanegunetan:
Goizetan 10etatik 13etara.
Arratsaldeetan 16etatik 20etara.
Jaiegunetan:
Goizetan 11etatik 14etara.
Arratsaldeetan 17etatik 21etara.

Antolatzailea:

